

## 03. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure ekoizpena, garraioa edo bermea aurrera eramateko, printzipioz **hiru bazkiderekin** izango ditugu aliantzak.


Alde batetik, etxearen zati nagusiak hornitzen dizkigun enpresa batekin egingo dugu akordioa. Hau da, beste enpresa batek guk **gure produktua ekoizteko behar ditugun osagaiak emango dizkigu**, eta guk gure enpresan azken produktua ekoiztuko dugu.

Bestalde, gure etxearen **barrualdeko elementu nagusiak** (sukalde, armairuak, lekua aurrezteko tolesgarriak diren somierrak...) eta **diseinu onak** edukitzeko gure proiektua enpresa ugari aurkeztuko diegu eta eskaintza onena ematen digunarekin egingo dugu akordioa. Enpresa hauen adibideak **IKEA** edo **Zara Home** izango lirateke.



# ZARA HOME

Azkenik, **igeltsero enpresa** batekin ere izango dugu bazkidetza. Abalife-ek hiru urteko bermea eskaintzen duenez, bezero baten etxeak arazoren bat edukiz gero, **enpresa honek igeltseroak erraztuko dizkigu**, hau da, azpikontrata bat izango genuke.



**Abalife enpresako bazkideei** dagokienez, lau gara, eta **bakoitza bere sailean espezializatiruk** egongo da, trebeak diren eremuetan kontuan hartuz. Lehenik, **Ekain** jendaurrean oso pertsona atsegina denez, **bezeroekin harremanetan** arituko da, hots, ofizinetan berak bezeroak jasoko ditu, eta arazoak izanez gero, haiekin kontaktuan jarriko da. Ondoren, **Manex** teknologian eta sare sozialetan oso aditua da, horregaitik, **marketing sailean** ibiliko da lan egiten, hau da, enpresaren sare sozialen edo webguneen arduraduna izango da. **Julen**, kontabilitatean eta, orokorrean, matematiketan oso ona da, beraz, **finantza sailean** lan egingo du. Azkenik, **Jon**, aginduak ematen trebea da eta langileak bakoitza bere zereginetan jartzen ona da, horregaitik **ekoizpen saileko arduraduna** izango da.